

**7/2018 INSTRUKZIOA, URRIAREN 24KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, 2018-2019 IKASTURTEKO BIGARREN LAUHILEKOARI DAGOKION EUSKARA IKASTEKO ESKABIDEAK TRAMITATZEKO ETA LANGILEAK AUKERATZEKO PROZEDURA ZEHAZTEN DUENA**

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren eta Osakidetza zuzendari nagusiaren 2018ko martxoaren 19ko 379/2018 Ebazpenak ezarritakoa betez (2018ko apirilaren 11n argitaratuta, 69. zk.), instrukzio honen bidez euskara ikasteko eskabideak tramitatzeke eta langileak aukeratzeko prozedura ezartzen da, 2018-2019 ikasturteko bigarren lauhilekoari dagokiona. Hona hemen xede horretarako ematen diren

**JARRAIBIDEAK****1. HELBURUA ETA INDARRALDIA**

Deialdi honen helburua da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen euskarazko hizkuntza-gaikuntza eragitea eta bultzatzea.

Instrukzio honek 2018-2019 ikasturteko bigarren lauhilekoari dagokion ikastaroetarako eskabideak tramitatzeke eta langileak aukeratzeko prozedura ezartzen du.

**2. NORENTZAT**

Deialdian parte har dezakete Osakidetza zuzendari nagusiaren langileak, lan-harremana edozein izanda ere, baldin eta 379/2018 Ebazpenaren egunetik ikastaro mota bakoitzerako eskaerak egiteko epea bukatu arte zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan badaude (lanorduetakoa: 2018ko martxoaren 19tik azaroaren 8a; lanorduz kanpokoa: 2018ko martxoaren 19tik abenduaren 12a).

**3. ESKAINITAKO IKASTAROAK****3.1. LANORDUETAKO IKASTAROAK**

IVAPek bere gain hartuko ditu matrikula eta, hala dagokionean, egonaldiaren gastuak (barnetegian).

**3.1.1. Barnetegia**

Barnetegiko ikastaroak Zornotzako Barnetegian eta Lazkaoko Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira. Langileak berak erreserbatu beharko du lekua dagokion barnetegian. Barnetegiko ikastaroak euskaltegien egutegiari eta ordutegiari egokituko zaizkie.



Barnetegietako egonaldiak lau hilabetekoak izango dira.

### **3.1.2. Bost orduko ikastaroak**

Modulu honek egun osoko lan-liberazioa eskatzen du, eskola orduetara ikasleak lan pertsonalerako behar duen denbora gehitu beharra baitago.

Ikastaroek beti ere lau hileko iraupena dute.

Administrazioko taldeek honako egutegi eta ordutegi hau izango dute:

Egutegia:

2019ko otsailak 11 - ekainak 21

Ordutegiak:

Bilbo eta Donostia: 08:00-14:00

Gasteiz: 08:30-14:30

Aste Santuan ez da eskolarik izango 2019ko apirilaren 18tik 28ra bitartean; beraz, eskolarik ez dagoen egunetan langileak lanpostura itzuli beharko du, aurrerago banatuko den egutegiaren arabera.

Ikastaroaren egutegi zehatza ikastaroa hasi baino lehenago banatuko da, eta bertan adierazi dira jai eta zubi egunak. Egutegian izan daitekeen edozein aldaketa garaiz jakinaraziko da.

### **3.1.3. Bi orduko ikastaroak**

Bigarren lauhilekoan ez da ikasle berririk onartuko. Aurreko lauhilekoan lanorduetan ikastaro trinkoa egin edo barnetegian egon diren langileek soilik eska dezakete lanorduetan 2 orduko modulu hau, baldin eta aurreko aldiko moduluan jarraitzen ez badute.

Egutegia IVAPeko ikastaldeetan: 2019ko otsailak 11 – 2019ko maiatzak 31

Aste Santuan, 2019ko apirilaren 15etik apirilaren 28ra bitartean ez da eskolarik izango, beraz, eskolarik ez dagoen egunetan langileak lanpostura itzuli beharko du, aurrerago banatuko den egutegiaren arabera.

Administrazio taldeetako ikastaroen ordutegia 08:00etatik 10:00etara izango da Bilbon, Gasteizen eta Donostian.

Arratsaldeetarako IVAPek ez du administrazioko talderik osatuko eta, ondorioz, arratsaldez eskolak hartu nahi dituzten ikasleei matrikula orria emango zaie, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikulatzeko, betiere onartu zaion moduluan.

### **Administrazioko talderik ez duten langileak.**

Administrazioko taldeen ordutegia eskatu arren talderik osatu ezin denean, IVAP saiatuko da ikasleak euskaltegi homologatu baten taldean eskolatzen, eta hori ere ezinezko bada, IVAPek Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko ditu matrikula orriak, honek langile bakoitzaren pertsonaleko zuzendaritzara helarazteko. Matrikula orriaren bitartez interesatuak berak aukeratutako euskaltegi publiko edo pribatu homologatuan matrikulatu ahal izango da, betiere onartu zaion moduluan.

Halaber, beste ordutegi edo herritan ikasi nahi duten ikasleei IVAPEk matrikula-orria emango die, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikula daitezen, betiere onartutako moduluan.

Interesatuak dagokion euskaltegiaren egutegira eta ordutegira moldatu behar du, egutegi eta ordutegi horiek IVAPEk eskainitako ikastaroekin bat ez datozenean.

IVAPEk ordainduko dituen matrikula-orri bidezko lanorduetako ikastaroek ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

a) Gutxieneko iraupena: Bost orduko eta barnetegiko ikastaroek lauhileko iraupena izan behar dute, eta gutxienez 400 ordukoak izango dira. Ordu biko ikastaroak otsailean hasi eta ekainean bukatuko dira. Eskatutako ikastaroaren ordu kopuruari erreparatuko zaio ikastaroa baimentzeko.

b) Ikastaroak HABEk homologatua izan behar du derrigorrez.

Matrikulazioa gauzatzeko, ezinbestekoa da langileak matrikula-orria euskaltegian entregatzea. Langileak ikastaroa ez egitea erabakitzen badu, matrikula orria itzuli beharko du 2019ko otsailaren 22a baino lehenago.

### **3.2.- LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK**

Deialdi hau 2018-2019 ikasturteko bigarren lauhilekoari dagokio, hau da, otsail-ekaina aldiari.

Deialdi honetan ez da ikasle berririk onartuko. Beraz, deialdi honetan ez da 2018ko urrian eskolatu ez den ikaslerik onartuko.

Lanorduz kanpoko aurrez aurreko ikastaroak euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean egin beharko dira, eta baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Gutxieneko iraupena: 2 orduko ikastaroak otsailean hasi eta ekainean bukatuko dira. Eskatutako ikastaroaren ordu kopuruari erreparatuko zaio ikastaroa baimentzeko.

b) HABEk homologatutako ikastaroak izan beharko dute, derrigorrez.

Otsailean ez da onartuko autoikaskuntza ikastarorik egiteko eskaerarik.

### **4.- ESKABIDEEN EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENA**

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea Intranet edo Internet bidez egin beharko dute, Osakidetzaaren webgunean dagoen eskabide elektronikoa betez. Hona hemen helbideak eta bideak:

- [www.osakidetza.eus](http://www.osakidetza.eus) (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > 1-2-3HE prestatzeko ikastaroak > 2018-2019 ikasturtea: otsail-ekaina deialdia > Eskainitako ikastaroak / Eskaerak)

- [www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus) (Profesionalak > Euskara > 1-2-3HE prestatzeko ikastaroak)

Salbuesenez, eskabidea modu elektronikoz egitea ezinezko denean, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan aurkeztu ahal izango da izena emateko eskabidea. Horretarako, instrukzio honen I Eranskinaren eskabide orria erabil daiteke.

Zerbitzu-erakundeek eskabideak GIZABIDE-EUSKERA prestakuntza moduluan grabatu eta tratatu beharko dituzte. Onartutako eta ukatutako eskabideen zerrenda Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko da, aukeratutako erretserben zerrendarekin batera.

## **1.- Lanorduetako ikastaroetarako epeak**

Eskabidea egiteko epea: 2018ko urriaren 25etik azaroaren 8ra bitartekoa, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

2018ko azaroaren 22a izango da azken eguna zerbitzu-erakundetako pertsonaleko zuzendaritzek Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzan eskabideak aurkezteko.

2018ko azaroaren 30a izango da azken eguna Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPi baimendutako eskabideen berri emateko.

Baimendutako eskabideekin batera, zenbait ordezkorenak ere bidaliko dira (gutxienez 2 eta gehienez 4), bajarik egonez gero, ordezkoekin betetzeko aukera egon dadin. IVAPek urtarrilean egingo dituen mailaketa-proben emaitzak jakinarazten dituenean izango da azken eguna ordezkapenak egiteko.

Baimena alfabetatze-ikastaroak egiteko ematen denean, erakundeak hasieratik hartuko du kontuan baimen hori jaso duen langilea ordezkatzeko aukera, alfabetatzeaz besteko ikastaro bat egingo duen langile batekin hain zuzen. Izan ere, ohikoak dira alfabetatze-taldeak eratzeko zailtasunak. Beraz, kasu honetan erakundeak arretaz zainduko du ordezkoek baldintza guztiak betetzea.

Zerbitzu-erakundeen zuzendaritzek interesatuei jakinaraziko diete idatzizko jakinarazpenaren bidez haien eskabidea baimendu duten ala ez. Onartu ez dutenean, arrazoia espresuki azaldu beharko die interesatuei. Jakinarazpena 2018ko azaroaren 21erako egin beharko da beranduen ere. Halaber, zerbitzu-erakundeek zabalkunde handiena duen hedabideen bidez emango dute jakinaraztera onartuen eta ukatuen zerrenda (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula ...).

Idatzizko jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 10 eguneko epea izango dute erreklamazioak bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzari aurkezteko.

Erreklamazioak Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan aurkeztu ahal izango dira eta, halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako edozein eratan.

## **2.- Lanorduz kanpoko ikastaroetarako epeak**

Eskabidea egiteko epea: 2018ko azaroaren 22tik abenduaren 12ra bitartean, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

2018ko abenduaren 28a izango da azken eguna zerbitzu-erakundetako pertsonaleko zuzendaritzek Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzan eskabideak aurkezteko.

2019ko urtarrilaren 11 izango da azken eguna Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPi baimendutako eskabideen berri emateko.

Zerbitzu-erakundeen zuzendaritzek interesatuei jakinaraziko diete idatzizko jakinarazpenaren bidez haien eskabidea baimendu duten ala ez. Onartu ez dutenean, arrazoia espresuki azaldu beharko die interesatuei. Jakinarazpena 2019ko urtarrilaren 7rako egin beharko da beranduen ere. Halaber, zerbitzu-erakundeek zabalkunde handiena duen hedabideen bidez emango dute jakinaraztera onartuen eta ukatuen zerrenda (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula ...).

Idatzizko jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 10 eguneko epea izango dute erreklamazioak bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzari aurkezteko.

Erreklamazioak Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan aurkeztu ahal izango dira eta, halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako edozein eratan.

## **5.- DEIALDIKO ARAU OROKORRAK ETA IKASTAROETARAKO ONARPEN-ARAUDIA**

### **5.1.- ARAU OROKORRAK**

Ondoren zerrendatutako gaiak arautzeko 2018-2019 ikasturteko deialdi nagusietako oinarriak aplikatuko dira, (379/2018 Ebazpena, martxoaren 19koa; Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean 2018ko apirilaren 11n argitaratua):

- Mailaketa-probak (6.1. oinarria): Beharrezko bada, IVAPek mailaketa proba egitera deituko du langilea. IVAPek Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinaraziko dio mailaketa proba nork egin behar duen, baita non eta noiz egin behar duen ere.
- Administrazio-taldeak antolatzea (6.2. oinarria) Ikastaroaren egutegi zehatza ikastaroa hasi baino lehenago banatuko da, eta bertan adieraziko dira jai eta zubi egunak.
- Matrikula orriaren bitartez eskolatzea (6.3. , 6.4., 7.3. oinarriak)
- Eskolan hastea (8.1. oinarria), IVAPek ez du onartuko 2019ko martxoaren 1a baino beranduago hasterik eskolan.
- Eskolan berandu hastea ( 8.2. oinarria)
- Eskolara joatea eta asistentzia kontrolatzea (8.4. eta 8.5. oinarriak)
- Ikastaroari uko-egitea (9. oinarria)
- Eskola behin betiko uztea (10. oinarria)
- Ordu-kredituari buruzko araubidea (11. eta 12. oinarriak)

### **5.2.- IKASTAROETARAKO ONARPEN-ARAUDIA**

Oraingo deialdi honetan otsailetik ekainera arteko eskaera egin ahal izango dute interesatuek, betiere baldintza hauen pean:

- a) Ikastaroa urrian hasi ez duten langileek ezingo dute bi orduko ikastarorik hasi otsailean. Urrian hasi ez direnek, beraz, otsailean bost orduko ikastaroa edo barnetegiko ikastaroa egin beharko dute.
- b) Urrian hasi diren ikasleek, aldiz, ikastaro trinkoa nahiz modulu aldaketa eskatu ahal izango dute otsailean, hau da, ikastaro trinkotik 2 orduko aldatzea, edo alderantziz.

Modulu aldaketei dagokienez, oraingo deialdi honetan ezingo da autoikaskuntza ikastarorik hasi.

#### **5.2.1. Lanorduetako ikastaroak**

Lanorduetako ikastaroa baimentzeko orduan kontuan hartuko dira aurreko ikastaroetan langileak izandako aprobetxamendua, ordu-kredituaren saldoa eta martxoaren 19ko 379/2018 Ebazpenean ezarritako gainerako betekizunak.

Zerbitzu-erakunde bakoitzaren zuzendaritzak aukeratuko ditu ikastaro hauetan parte hartuko duten langileak.

Lanorduetan 2 orduko ikastaroetan parte hartu ahal izango dute soilik txanda finkoan ari diren langileek.

Lanorduetako euskara ikastaroetan parte hartzen duten langileek ezinbestean lanpostura itzuli beharko dute eskolarik ez dagoen egunetan, aurrerago banatuko den egutegiaren arabera. Normalean horrela gertatuko da Aste Santuko eskola-oporretan, jaiegunetan, baita euskaltegiak egiten dituen asteburuko zubietan ere.

Ikastaroaren egutegi zehatza ikastaroa hasi baino lehenago banatuko da, eta bertan adieraziko dira jai eta zubi egunak. Egutegian izan daitekeen edozein aldaketa garaiz jakinaraziko da.

Zerbitzu-erakundeko zuzendaritzak bermatuko du ikastaroetan parte hartuko duten langileek euren oporrak ikastaroko egutegiarekin egokitzen dituztela, ikastaroen aprobetxamenduak kalterik izan ez dezan. Pertsonaleko zuzendaritza bakoitzak liberatuta dagoen langilearen karteldegia urteko ohiko lanaldira egokituko du.

Liberatuta dagoen langileak eskola-egunetik kanpo hartu behar ditu opor-egunak, ikastaro hauen ezaugarriak kontuan hartuta, aprobetxamendua ahal den onena izateko.

Ikas-prozesua eteteak ikastaroan jarraitzeko eskubidea galtzea ekar lezake.

### **5.2.2. Lanorduz kanpoko ikastaroak**

Ikastaro hauek 2018-2019 ikasturteko bigarren lauhilekorako dira, hau da, otsail-ekaina aldirako. Deialdi honetan ez da ikasle berririk onartuko. Beraz, deialdi honetan ez da 2018ko urrian eskolatu ez den ikaslerik onartuko.

## **6.- IKASTAROEN HASIERARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskolan. IVAPek bertan behera utziko ditu eskolan hasi ez diren langileen eskaerak.

Moduluz aldatzen diren ikasleen kasuan, hasiera-dataren erreferentea ikastaro trinkoa izango da:

- Ikastaro trinkotik 2 ordukora aldatzen diren ikasleek lehenik eta behin ikastaro trinkoa bukatu behar dute, eta ondoren aldatuko dira 2 orduko ikastarora.
- 2 orduko ikastarotik trinkora aldatzen diren ikasleek 2 orduko ikastaroan jarraituko dute harik eta ikastaro trinkoa hasi arte.

## **7.- LANORDUETAKO IKASTAROETARAKO AUKERAKETA-IRIZPIDEAK**

Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Planaren 3.3.4 puntuan ezarritakoaren arabera, euskara-ikastaroetara lanorduetan joateko irizpide orokorrak honako hauek izango dira:

- Derrigortasun-datadun lanpostuak betetzen dituzten langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute derrigortasun-datarik gabeko lanpostua betetzen dutenek baino.
- Langile finkoek lehentasun handiagoa izango dute finko ez direnen langileek baino.
- Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten langileek lehentasun handiagoa izango dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileen aldean.



- Adinagatik edo lan-harremanagatik, inor da baztertua izango lanorduetako euskara ikastaroetara joateko.  
Dena dela, 50 urtetik gorako langileen kasuan, deialdi honen aurreko bi ikasturteetan B1B1 maila (HABEren curriculum zaharraren 6. urratsa) edo altuagoa gairidituta izan beharko dute, edo bestela 2019ko urtarrilean egingo den mailaketa-proban maila hori eman beharko dute.

Kontuan hartuta prestakuntzaren helburua dela zerbitzu-erakundearen helburuak lortzen laguntzea, ondorengo irizpide hauek ere aintzat hartuko dira irizpide nagusiekin batuz eta osatuz:

- Egiaztapena lortzeko behar den prestakuntza-denbora.
- Hizkuntz eskakizuna jadanik egiaztatu duten langileen birziklatze beharrak.
- Lanpostu funtzionalari ezarri zaionetik gorako hizkuntz eskakizuna egiaztatzea komeni izatea, efektibo bateko funtzioak betetzearen inguruan egoeraren arabera suerta daitezkeen zirkunstantzia bereziengatik.
- Pertsonal finko ez-titularrak, adinagatik salbuetsitako pertsonalak edo pertsonal interinoak betetzen duen efektibo batean modu espezifikoan sortzen diren behar zehatzak eta ohiz kanpokoak, hala nola, atenditutako herritarrak pozik ez egotea, eskatzen dituzten zerbitzu elebidunak ez jasotzeagatik, edo jarduera asistentzialeko arduradunek paziente eta erabiltzaileekiko harremanen kalitatean eragina izaten duten gabezi garrantzitsuak nabaritzea.
- Pertsonal interinoa denean, efektibo horretan jarraitzeko aurreikuspena ere baloratuko da.
- Langileen ikaste-prozesua nabarmenki erraztu edo zailtzen duten gorabeherak eta horregatik prozesuaren errendimendua eta hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko aukerak areagotu edo murriztu ahal dituztenak, hala nola, hasierako euskara maila eta langilearen adina.
- Efektiboaren harreman zuzena paziente eta erabiltzaileekin, Osakidetzaren euskararen erabilera normalizatzeko den 67/2003 Dekretuaren eta Zerbitzu-erakundeko Euskara Planaren lehentasunen arabera.

Nolanahi ere, lanorduetako ikastaro trinkoetara joateko baimena ondoko irizpideari lotuta egongo da: langileak lehentasunezko zat jotako unitatean dagoen lanpostua bete beharko du, Osakidetzaren 2. Euskara Planaren 5.5 atalak jasotakoaren arabera.

## **8.- IKASTAROEI UKOAK ETA ESKOLA-UZTEAK TRAMITATZEKO ETA GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZARI JAKINARAZTEKO PROZEDURA**

### **8.1. Ikastaroari ukoa**

Zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek langileek jakinarazitako uko guztiak bidaliko dituzte Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara, erabili ez diren matrikula orriekin batera, baita langileek jaso ez dituzten matrikula orri guztiak ere.

Matrikula orriak eta dagozkion jakinarazpenak langileek aurkeztu ahala bidaliko dituzte zerbitzu-erakundeek, ukoen laburpen-zerrendarekin batera. Langileek jaso ez dituzten matrikula-orriak eta ikastaroegi egindako ukoak eta dagozkion jakinarazpen-inprimakiak bidaltzeko azken eguna 2019ko martxoaren 8a izango da. Giza Baliabideen Zuzendaritzak ez ditu onartuko data horretatik aurrera jasotako ukoak.

## 8.2. Eskola uztea

### a) Eskola-uzteak erregistratzea

Zerbitzu-erakundeek langileek uko-jakinarazpena aurkeztu duen egun berean erregistratuko du erakundearen erregistroan inprimakia.

IVAPek diruz lagundutako aurrez aurreko ikastaroak direnean oso garrantzitsua izango da inprimakia zerbitzu-erakundearen pertsonaleko zuzendaritzan lehenbailehen erregistratzea. Izan ere, eskola-uztearen data inprimakia langilearen zerbitzu-erakundearen erregistroan sartu den eguna izango da eta IVAPek egun hori hartuko du ordu-kredituaren kontaketa eteteko.

Osakidetzak diruz lagundutako ikastaroa egiteko baimena duten langileen uko-jakinarazpenak ere erregistratuko dira, aurrez aurrekoak zein autoikaskuntzakoak izan.

### b) Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinaraztea

IVAPek ordaindutako aurrez aurreko ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa bidaliko dute zuzenean IVAPera egun berean, IVAPek dagokienei horren berri eman diezaien. Halaber, Osakidetzako Euskera Zerbitzu Korporatiboari eskola uztearen berri emango diote.

IVAPek ordaindutako autoikaskuntza ikastaroen kasuan, eskola-uztearen jakinarazpena Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinaraziko zaio soilik.

Osakidetzak ordaindutako ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko dute.

## 9.- ORDU-KREDITUA

Deialdi honetara biltzen diren eskari guztiek ordu-kredituaren sistema izango dute ezarrita, betiere, IVAP eta Osakidetzaren arteko lankidetzaren hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduak ezarritakoaren arabera.

Agindu horren seigarren artikuluari jarraiki, euskara ikastaroa lanorduetan hasi ahal izateko beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa aldekoa izatea ikasturte hasieran.

Ikasle berriaren ordu-kreditua ezartzeko orduan kontuan hartuko den hasiera-maila urrikoa izango da, edo otsailekoa urrian ikastarorik egin ez badu. Udako hasiera-maila kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, ikasle berriak udan ikasten badu, baina hurrengo urrian edo otsailean ez.

Urrian aldeko saldoarekin eskolan hasitako langileek otsaileko deialdian lanorduetako ikastaroa eskatu eta otsailerako ordu-kreditua negatiboa badute, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 2/2018 Jarrabideek ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Bestela, ukatu egingo zaie eskatutako ikastaroa.





## **10.- ORDEZKAPENAK GIZA BALIABIDEETAKO INFORMAZIO SISTEMAN (SAP) ERREGISTRATZEA**

Euskara ikasteko liberazioak betetzeko kontratatzen diren ordezkapenetan SAPEko ondorengo neurri eta zioetako bat aplikatu beharko da kasuaren arabera: 9A, 13; 81, 09 zioa; 83, 09; 84, 10; 84, 11; 9Y, 07.

Neurri horiek aplikatzerik ez dagoenean, zerbitzu-erakundeek Euskara Zerbitzua Korporatiboari kontsultatuko diote. Ordezko langilea ordezkatu behar denean, ostera, ez dira neurri horiek aplikatuko.

Era berean, kontuan hartu behar da eskolarik ez dagoen guztietan, liberatutako langileek euren lanpostura itzuli behar dutela (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 19ko 379/2018 Ebazpenaren 8.4. puntua). Normalean horrela gertatzen da Aste Santuko oporretan, jaiegunetan, baita euskaltegiak egiten dituen asteburuko zubietan ere.

Horregatik, aipatutakoa hartu beharko da kontuan ordezkoen kontratuetako hasiera eta bukaerako datak ezartzeko orduan. Beraz, eskolarik ez dagoenean langilea ez bada lanera itzultzen, ordezkorenean neurria egokitu egingo da.

Euskara ikasteko liberatutako langileei "Absentismo" 2001 neurria, 90PK azpi-tipoa mekanizatu beharko zaie SAPen, Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko Zuzendariordetzatik jakinaraziko den egutegiaren arabera.

## **11.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA**

Euskara ikastaroak kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta datu pertsonal horiek dagokion enteei lagatzea. Hori dela eta, IVAPEk, edo hala dagokionean HABEK, lanorduetan nahiz lanorduz kanpo euskara ikasten ari diren langileen eskabideei, asistentziari eta ebaluazioari buruzko datuak jaso, kudeatu eta bilduko ditu eta Osakidetzaren esku utziko ditu.

Deialdi honetara biltzen diren pertsonak onartu egiten dute instrukzio honen helburua betetzeko IVAPEk, edo hala dagokionean, HABEK datu pertsonalak prozesatzea. Beraz, onartu egiten dute IVAPEk, edo hala dagokionean, HABEK datuak jasotzea, tratatzea eta Osakidetzari euren asistentziari eta ebaluazioari buruzko informazioa jakinaraztea. Hori guztia martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan normalizatzekoaren, 1.3. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-txostena egiteko eta Osakidetzaren Euskara Plana egoki kudeatzeko. Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua). Onartu egiten dute, halaber, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari -HABE- (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera). Eta azkenik, interesatuak onartu egiten dute Osakidetzak ikasturtean izandako asistentzia eta euskara-mailari buruzko datuak HABEri eskatzeko.

Eskatzaileen gaineko informazioa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Giza Baliabideetako Dibisioak kudeatuko ditu (Araba kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz, 945006000 telefonoa).

Instrukzio honen ondorioz jasoko diren datuen tratamendua bat etorri beharko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduarekin (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, bai eta aplikatzekoak diren estatuko gainerako arauekin ere.

Interesdunek, datu pertsonal horietan sartzeko, datuok zuzendu, ezeztatze eta tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubideak eta indarrean dagoen legeak onartzen duen beste edozein eskubide erabili ahal izango dute. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko ordezkarirengana jo dezakete (DPD-DBO@euskadi.eus – Donostia-San Sebastian kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz). Halaber, datuak tratatzeko eman zuten baimena baliogabetzeko eskubideaz baliatu daitezke. Azkenik, interesdunek Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo dezakete erreklamazioa aurkezteko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 23a  
Osakidetza

Juan Carlos Soto Pérez  
GIZA BALIABIDEZAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Juan Carlos Soto Pérez  
**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**

**I. ERANSKINA / ANEXO I**

**EUSKARA IKASTAROETARAKO ESKABIDEA / SOLICITUD CURSOS DE EUSKARA** | 2018  
**otsail-ekaina / febrero-junio** |  
 | 2019

**ESKATZAILEA**  
**SOLICITANTE**
**OHARRA**  
**ATENCIÓN**

Datu guztiak egoki bete behar dira eskaera ontzat emateko.  
 Izen-abizenak nortasun aglrian dauden bezala idatzi.  
 Para que se acepte la solicitud deben cumplimentarse todos los datos.  
 Escribir nombre y apellidos tal como aparecen en el DNI.

**NAN**  
**DNI**
**Perts. zk.**  
**Nº pers**
**Abizenak**  
**Apellidos**
**Izena**  
**Nombre**
**Zerbitzu-erakundea**  
**Organización de**  
**servicios**
**ESKATUTAKO IKASTAROA**  
**CURSO SOLICITADO**

**Markatu euskara ezagupenik ez baduzu, eta lehenengo mailatik hasi behar baduzu**  
**Marque aquí si no tiene conocimientos de euskera y debe empezar desde el primer nivel.**
**IKASTAROA** **Bakarra aukeratu**  
**CURSO** **Elegir solo uno**
 **Lanorduetan**  
**En horario laboral**
 **Lanorduz kanpo**  
**Fuera de horario laboral**
**MODULUA**
**Bakarra aukeratu**  
**Elegir solo uno**
 **5 ordu / 5 horas**
 **Barnetegia / Internado**
 **2 ordu / 2 horas**
**Ordutegia**  
**Horario**
**ESKATZAILEAREN SINADURA**  
**FIRMA DE QUIEN SOLICITA**
**ZERBITZU-ERAKUNDEAREN O.E. eta ZIGILUA**  
**Vº Bº y SELLO DE LA ORGANIZACION DE SERVICIOS**
**DATA**
**IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA**
 **BAIMENA EMATEN DUT** eskaera honetan jasotako datu pertsonalak tratatzeko.

Euskara ikastaroak kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta datu pertsonal horiek dagokion enteei lagatzea. Hori dela eta, IVAPek, edo hala dagokionean HABEK, lanorduetan nahiz lanorduz kanpo euskara ikasten ari diren langileen eskabideei, asistentziari eta ebaluazioari buruzko datuak jaso, kudeatu eta bilduko ditu eta Osakidetzaren esku utziko ditu.

**TRATAMIENTO DE LOS DATOS DE CARÁCTER PERSONAL**
 **AUTORIZO** el tratamiento de los datos personales recogidos en este formulario.

Al objeto de gestionar los cursos de euskera, resulta imprescindible recoger, procesar, reunir en un fichero y poner a disposición de los entes correspondientes los datos personales pertinentes de las personas solicitantes. Por este motivo, El IVAP, o en su caso HABE, recogerá, tratará y almacenará aquellos datos personales relativos a solicitudes, asistencia y evaluación del personal que reciba formación lingüística dentro y fuera de horario laboral, y los pondrá a disposición de Osakidetza.

## Osakidetza

Deialdi honetara biltzen diren pertsonak onartu egiten dute instrukzio honen helburua betetzeko IVAPek, edo hala dagokionean, HABEk datu pertsonalak prozesatzea. Beraz, onartu egiten dute IVAPek, edo hala dagokionean, HABEk datuak jasotzea, tratatzea eta Osakidetzari euren asistentziari eta ebaluazioari buruzko informazioa jakinaraztea. Hori guztia martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan normalizatzekoaren, 1.3. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-txostena egiteko eta Osakidetzaren Euskara Plana egoki kudeatzeko. Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua). Onartu egiten dute, halaber, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari - HABE- (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera). Eta azkenik, interesatuak onartu egiten dute Osakidetzak ikasturtean izandako asistentzia eta euskara-mailari buruzko datuak HABEri eskatzeko.

Eskatzaileen gaineko informazioa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Giza Baliabideetako Dibisioak kudeatuko du (Araba kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz, 945006000 telefonoa).

Instrukzio honen ondorioz jasoko diren datuen tratamendua bat etorriko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduarekin (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeri dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, bai eta aplikatzekoak diren estatuko gainerako arauekin ere.

Interesdunek, datu pertsonal horietan sartzeko, datuok zuzendu, ezetzatzeko eta tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubideak eta indarrean dagoen legeak onartzen duen beste edozein eskubide erabili ahal izango dute. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko ordezkariarengana jo dezakete (DPD-DBO@euskadi.eus - Donostia-San Sebastian kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz). Halaber, datuak tratatzeko eman zuten baimena baliogabetzeko eskubideaz baliatu daitezke. Azkenik, interesdunek Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo dezakete erreklamazioa aurkezteko.

Las personas que participen en esta convocatoria autorizan el procesamiento de datos personales por parte del IVAP, o en su caso de HABE, llevado a cabo para el cumplimiento del objetivo de esta instrucción. Por lo tanto, autorizan la recogida y tratamiento de datos por parte del IVAP, o en su caso de HABE y puesta a disposición de Osakidetza de la información de su asistencia y evaluaciones, al objeto de llevar a cabo el informe de evaluación previsto en el artículo 1.3 del Decreto 67/2003, de 18 de marzo, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como para gestionar convenientemente el Plan de Euskera de Osakidetza. Autorizan, asimismo, la cesión de esos datos a la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura para la elaboración del informe de evaluación sobre el nivel de cumplimiento del plan de normalización (Artículo 6 del Decreto 86/1997 de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). Igualmente, autorizan la cesión de datos a HABE -Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos- (en cumplimiento de lo establecido en la disposición adicional sexta del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi). Por último, autorizan a Osakidetza para solicitar a HABE los datos sobre su asistencia y el nivel de euskera obtenidos durante el curso.

La información sobre las personas solicitantes será gestionada por la División de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud (c/ Alava 45, 01006 Vitoria-Gasteiz, teléfono 945006000).

El tratamiento de los datos recogidos como consecuencia de esta instrucción se ajustará a las previsiones del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y demás normativa estatal de aplicación.

La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión de sus datos y la limitación u oposición a su tratamiento ante la delegada de Protección de Datos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi (DPD-DBO@euskadi.eus - Donostia-San Sebastian kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz). Asimismo, tendrá derecho renunciar a la acción emprendida mediante la retirada de su consentimiento del tratamiento de datos personales. Dispone, igualmente el derecho a reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.